



2020 HAUTESKUNDEAK

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOKO HAUTESKUNDE BATZORDEA

2 ZKDUN AKTA

ETORRIAK

Lorenzo González Sarmiento Jn. Hauteskunde Batzordeko presidente gisa
Iñaki Irigoien Larrañaga Jn. Hauteskunde Batzordeko idazkari gisa.
Kepa Sanz Vicente Jn. Hauteskunde Batzordeko bokal gisa.

Hauteskunde Batzorde hau, Gipuzkoako futbol Federazioko egoitzan elkartu da 2020ko Urriaren 1ean eta aho batez ondorengo erabakiak hartu ditu:

1) BEHIN BEHINEKO HAUTESKUNDE ERROLADARI EGINDAKO ERREKLAMAZIOA

Ondorengo erreklamazioa aurkeztu du:

- IKER SANZ Jnk. Teknikarien erroldan egon dadin eskatzen du. Araudiak eskatzen duena betetzen ez duelako ezeztatua izan da. Erabaki osoa interesatuari bidali zaio.

2) HAUTESKUNDE ERROLDAREN ERABATEKO ONARPENA

Erreklamazioa ebatsi ondoren, **GFF-FGF osatzen duten estamentuen erabateko hauteskunde errolda onartzen da.**

Horrela, Federazioko idazkaritzari, erabateko errolda hau, berri taulan eta Federazioko web orrian argitaratuak izan daitezen adierazpena ematen zaio, eta, aldi berez, informazioa, Euskal Futbol Federazioari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Sailari zuzentzen zaio.

3) ESTAMENTU BAKOITZEAN BETE BEHARREKO KOPURU ZENBAKIA

Ondorengo araudia izaten da kontutan:

- GFF-FGF ko Estatutuen 23 artikulua
- GFF-FGF ko Hauteskunde Araudiko 35-40 artikulua
- Hauteskundeak arautzen dituen 2012 ko Otsailaren 19ko Eusko Jaurlaritzaren Aginduko 39-44 artikulua.

Federazioko Estatutuetako 23. artikulua eta Hauteskunde Araudiko 37. artikulua diotenaren arabera, Estamentu bakoitzari dagozkion portzentaiak kontutan izanda, Batzar Orokorra 110 pertsonen osatze dute.

Hauteskunde Araudiko 38. artikulua esaten duenaren arabera, estamentu bateko pertsona kopuruak honi tokatzen zaion ordezkari kopurua betetzen ez badu, hutsuneak, beste estamentuen artean banatuko dira.

Horrela, historikoki beste estamentuek GFF-FGF ko Batzar Orokorrean izan dituzten ordezkarien arabera (8 teknikariek estamentuak, 8 epaileenak eta 5 jokalariek), eta Estatutuek eta Hauteskunde Arautegia kontutan izanda, **taldeen estamentuan dauden hutsuneak, araudiak erabakitzen duen portzentaien arabera, beste estamentuen artean banatuko dira. Beraz, GFF-FGF ko Batzar Orokorra honela gelditzen da:**

Taldeen estamentuari 84 ordezkari dagozkie, hauetatik 78 futbol 11ko taldeak izango dira eta 6 berriz areto futbolari dagozkie.

Erabateko erroldan ageri diren futbol 11ko taldeak 78 direnez, talde guzti hauek GFF-FGF ko Batzar Orokorrean talde estamentuan ordezkatuak daude eta ondorioz ez dute hautagairik aurdeztu behar.

Areto futboleko taldeei dagokionez, 6 ordezkari tokatzen zaizkie Batzar Orokorrean. Horrela, Estatutuetan eta Hauteskunde Araudian arautzen den %5 a ziurtatzen da.

Teknikarien estamentuari 10 ordezkari dagozkie.

Epaileen estamentuari 10 ordezkari dagozkie.

Jokalariek estamentuari 6 ordezkari dagozkie.

4) ESTAMENTU ALDETIK BATZAR OROKORRERA HAUTAGAI IZATEKO AURKEZPEN EPEAREN IREKIERA

Hauteskunde Egutegian esaten denaren arabera, Estamentu aldetik Batzar Orokorrean hautagai izateko aurkezpen epea 2020ko Urriaren 5ean (astelehena) irekitzen da eta 2020ko Urriaren 9an (ostirala) itxi.

Hauteskunde Araudiko 44.1 artikuluan esaten denaren arabera, **hautagaiak, derrigorrez, GFF-FGFan eta bertako web orrian dauden onartutako eredu ofizial bidez aurkeztu beharko dira**

Bestalde, Hauteskunde Araudiak dioenaren arabera, Federazioko Administrazio Zerbitzuek, Hautagaitza aurkeztu deneko ziurtagiria luzatuko dute eta honen ordezkagiria prestatu.

a) EPAILE, TEKNIKARI eta JOKALARIen estamentuetako hautagaitzak

Hautagaitzak interesdunak berak AURREZ AURRE aurkeztuko ditu, GFF-FGFren egoitzan, jendeari arreta emateko ordutegian, eredu ofizialen bidez. Nolanahi ere, hautagaiaren NANaren fotokopia erantsi beharko da bi aldeetatik.

b) TALDEetako estamentuetako hautagaitzak

Kasu honetan, adierazpena, areto futboleko kasuari dagokio soilik, futbol 11ko taldeen kasuan hautagairik aurkeztea beharrezkoa ez bai da.

Hautagaitzak GFF-FGFren egoitzan aurkeztuko ditu, jendeari arreta emateko ordutegian eta eredu ofizialen bidez.

HAUTESKUNDE BATZORDEA

Izpta: Iñaki Irigoien

Izpta: Lorenzo González

Izpta: Kepa Sanz

